


Usurbilgo zaintza ekosistema

ERALDAKETA BIDEAN: **EKAINA**





HILABETEKARIA

Usurbilgo udalak **zaintza ardatz** izango duen prozesu parte hartzaileari ekin zion 2021eko martxoan. Egun, prozesuari jarraiki, **eraldaketa bidean** diardu herriak. Zaintza hezurmamitzen duen Lan Talde Operatibo ezberdinetan banaturik, pausoz-pauso eta Matia Institutuaren bidelaguntzaz, Usurbilgo **Zaintza Ekosistemaren definizio eta eraikuntza kolektiboan** darrai buru belarri.

Esku artean duzuen buletinak **prozesuaren lekukotza** jasotzeko sortua da. Bertan topatuko dituzue landutako korapiloak, emandako urratsak eta topaturiko oztopoko zein arrakastak.

Talde Operatiboak

Eraldaketa burutu ahal izateko, zaintza ekosistema ezaugarritzen duen zutarri bakoitzeko Lantalde Operatibo bana sortu da, guztira, zazpi lantalde osatuaz:

1. **Zerbitzuen** talde operatiboa

2. **Ehun komunitarioaren** talde operatiboa

3. **Pertsona erabiltzaileen** talde operatiboa

4. **Zaintzaile afektiboen** talde operatiboa

5. **Gizarte Zerbitzuen** talde operatiboa

6. Talde **estrategikoa**

7. Talde **eragilea**



Saioak



EHUN KOMUNITARIOA

- 2022/05/09
- 2022/06/06

ZAINTZAILE AFEKTIBOAK

- 2022/05/10

PERTSONA ERABILTZAILEAK

- 2022/05/10
- 2022/06/16
- 2022/07/10

ZERBITZUAK

- 2022/05/20
- 2022/06/06

GIZARTE ZERBITZUAK

- 2022/05/20
- 2022/06/06
- 2022/06/20

LANTALDE ESTRATEGIKOA

- 2022/02/02
- 2022/04/03
- 2022/04/19
- 2022/05/13
- 2022/06/20
- 2022/07/14

Zerbitzuen Talde Operatiboa

Herriaren **zerbitzuei eta baliabideei** buruz hausnartzea izan zen bigarren saioaren helburua, kasu praktiko baten bidez prozesu guztiaz hausnartu ahal izan zen zerbitzuetako bederatzi partaideek, zortzi emakumezko eta gizonezko batek. Saioan zehar harremanez, senideen beharrez eta halako zaintza prozesuen gaineko arreta psikologikoaren beharrez hausnartu zen maila partekatuan.

Harremanei dagokionean, egoitza batera sartzeak pertsonaren bizi-ereduari suposatzen zion aldaketez hausnartu zen "Batzuetan harremana galtzen da pertsona bat egoitza batean sartzen denean, askotan mundu paralelo batera doala ematen du" (Z2, 2022).





Zerbitzuen Talde Operatiboa

Senideen beharrizanez hausnartuta, premiarik erantzun gabe uztea ekiditeko prozedura eta tresnez hausnartu zen, honetarako zerbitzuen arteko koordinazioa handitzeak zuen estrategikotasuna planteatuz "zerbitzu batetik erantzun ezin bada, beste bat bilatu behar da" (Z2, 2022)

Azkenik, senide, pertsona erabiltzaile zein langileen **egoera emozional zein psikologikoa** baloratzeko eztabaida zabaldu zen talde mailan. Honi erantzuteko baliabide eta bideak ipintzea nori zegozkion hausnartuz eta eztabaidatuz, bai eta baliabideak ipintzea ere beharrezkoa ote zen aztertuz.

Gizarte-zerbitzuen Talde Operatiboa

Bigarren saioan zehar Pertsona(k) Ardatz duen Arreta ereduaren inguruko kontzeptuak landu eta honen inguruan hausnartzea erabaki da. Bost emakumeren partaidetza izanik, barne galdeketarako aukerak suertatu direla ondorioztatzen da, norberaren egunerokotasunean egin ezin diren hausnarketak eginez. Saioak barne mailako hausnarketa eskenatoki izatea helburu izan duenez, egondako eztabaidaren lagin txiki bat

ekartzea besterik ezin da, barne prozesuaren intimotasunak errespetatze asmoz. Besteak beste, sortutako zalantzak honakoak izan dira:

“Zer gartatzen da, adineko pertsonak duena baino gaitasun gehiago duela uste duenean?” eta erantzuna... eta nola ulertuko genuke hau bera beste begirada honetatik “Zer gartatzen da, pertsonari duena baino gaitasun gutxiagorekin ikusten dugunean?” (GZ2, 2022)

“Haurrak ere askotan behar duena baino gehiago babesteko joera izaten dugu... Adinekoekin ere berbera gertatu dakiguke”. (GZ2, 2022)





Pertsona erabiltzaileen Talde Operatiboa

Pertsona erabiltzaileen bigarren saioari heltzeko, oraingoan pertsonen **egunerokotasuneko espazioetara salto** egitea hobetsi da. Honela, eguneko arreta zerbitzua baliatu zen elkarriketak egiteko ingurune gisara. Bertan, beraien errealitateetatik hasita, eztabaidari heltzeko naturaltasuna eta hurbiltasuna areagotu zitekeela ikusi da. Urratsari esker, bederatzi partaide izan ziren, sei emakume eta hiru gizonezko. Saioaren helburua zaintza ekosisteman dauden subjektu ezberdinen ardura eta parte-hartzeaz hausnartzea izan zen. Honela, senideek, gizarte zerbitzuek, bizilagunek, herrigintzako eragileek... zaintzan zuten rolaz eta izan zezaketenaz eztabaidatu zen era kolektiboan.


Jasotako hausnarketen artean **familia ereduak azken urteetan izandako aldaketa** nabariez hitz egin da. Aldaketa-korapilo horien hari muturra **kontziliazioan** dela diote. Egun "dena itxiagoa eta zailagoa dela sentitzen dute" eta horrek zailu egiten duela heuren seme-alabek

Pertsona erabiltzaileen Talde Operatiboa

eskaini dezaketen zaintza mota. Herrian **egunkako egoitza-zerbitzua izatea** gustatuko litzaieke, familiak zaindu ezin dituen egunetan joan ahal izateko, senide arteko kontziliazio langa malgutze aldera.

Bestalde, usurbilen pertsona helduek bizi duten **bakardadea** ere ageri da kezka ardatz. Honi erantzunez, bolondres sarea egon zitekeela hausnartu dute, konpainia nahi duten pertsonentzako. Baina, nagusiki, aldaketaren gakoa **auzoen arteko komunikazioa eta irisgarritasuna hobetzean** datzala uste da. "Kaleetako espaloiak hobetzea, pertsonak kalera atera eta hobeto mugitu ahal izateko" (PE 2, 2022).

Azkenik, informazioaren irisgarritasunaz ere hausnartu da. Herrian senide arteko ahoz-ahoko lanetik eta gizarte zerbitzuetatik haratago dauden **zaintza-zerbitzuen inguruko informazioa sozializatzeko dinamikak** burutzea ezinbestekotzat jo da, zerbitzuen estigmatizazioa gainditu eta erabilera kolektibizatze aldera.





Ehun Komunitarioaren talde operatiboa

Saio honetako hausnarketak Usurbilgo ehun komunitarioa zaintzari begira jartzeko eta zaintzan inplikatzeko hasteko lan-ildoak zehazteko aukera eman du. Sei parte hartzaile emakumezko batu dira eta bertan hainbat esparruren lanketan sakondu nahi izan da. **Sentsibilizazioa**, herritarrak kontzientzia har dezaten zaintza behar dugula onartzeko, zainduak izateko dugun eskubide kolektiboa, herritar bezala hartu behar ditugun ardurez jabetzeko... Sentsibilizazioa burutzeko baina jendearengana gerturatu beharra azpimarratu da, elkartzen diren espazio naturaletan lanketak burtuaz, hala nola, hezkuntza mailan, mezuak indibidulaki eta baita taldeei helaraziz. Sentsibilizazio hau aurrera eramateko proposamen zehatzak egin dira.

Ehun Komunitarioaren talde operatiboa

- Ghetto-ak apurtu
- Haurrekin egiuko prozesua
- Egunerokotasunarekin elkartzea
- Zaintza berrak dugula ohar
- Trukeak bisibilizatu
- Euzkumeen papera
- Dukerak auzi
- Herria elkarrekin
- Herriaren giza
- "Zetarako zauden prest?"
- Herria ~~~~~ Administrazio
- Herria ~~~~~ papera

Ehun komunitarioaren talde operatiboa

Herriko elkarteak / auzo elkarteak / bolondres sareak ere esparru estrategikotzat jo dira. Elkarteek bakoitzak beraien esparrutik zer egin lezaketen hausnartzera gonbidatzea proposatu da. Gaia eskaini eta beraiekin batera hausnarketa bultzatuz, denon artean sortzeke dagoen sistema berri hura eraikitzeko. Urrats hauetan ordea bada konplexua izan daitekeen oreka. Komunitatearen konpromezuak egonkorak behar duela uste da, baina era berean komunitateko kideek

indibidibualki ezin duela egonkortasun hori bermatu, finean lan bolondresak ezinbestean lan jardun erremuneratu baten ordutegiez eta bizitzako bestelako zereginenez kontziliatzeko gai diren ereduak behar baitituzte. Beraz lan bolondresa konplementu bat izan behar du, "egonkorak beste estruktura batzuk behar dute" (EK2, 2022).

Azkenik, **Merkataritza, Ostalaritza eta Farmazia** bezalako enpartaidetzez hausnartu da. Aipatu hauekin lanketak bikoitza beharko lukeela izan. Alde batetik, nola egin komertzio txikia bizirik mantentzeko eta, bestetik, dendariei ere gaia zabaltzeko, behaketa lanak, baliabideak eskaini eta beraien esparrutik zer egin dezaketen mahaigaineratzeko?





Eraldaketa bidean...



www.usurbil.eus



[@usurbiludala](https://www.instagram.com/usurbiludala)



Potxoenea



Usurbilgo Udala

matia